

ZM

MARI MAR MARTÍNEZ

Osasun Zentroko Lehen Mailako
Arretako unitateburu

Imajinatzen
duzu Zorrotza
merkataritzarik
gabe?

Baduzu eskaintzarik
onena Zorrotzatik
irten barik

ZAINDU TOKIKO MERKATARITZA

EROSI AUZOAN!

www.comerciantes-zorrotza.com



Izan korrika laguntzailea

EKIN KORRIKARI!

12 euroren truke,
garrantzitsuena lortuko duzu:
AEKren euskaltegiei laguntzea.
Horrez gain, pina eta txartelaren
abantailak eskuratuko dituzu.

GALDETU EUSKALTEGIAN:

Zalbidea 7
663 080 976
zorrotza@æk.eus

æk
22.korrika
HITZEKIN

Amurriotik Donostiara
2022ko martxoaren 3tik apirilaren 10era

æk
22.korrika

HITZEKIN

Amurriotik Donostiara
2022ko martxoaren 3tik apirilaren 10era

korrika.eus



Sader badoa auzotik!

sarrera



Zorrotzako herri aldizkaria
74. alea. 2022ko martxoa

f @ZorrotzMorrotz
t @zorrotzmorrotz
e zmorrotz@gmail.com

Argitaratzen du:
Zorrotzako Euskal Txokoa

Erredakzioa:

Ibai Barrios
Ainara García
Igor Gutiérrez
Aitor Marín
Naroa Peña
Iratze Pérez
Zuriñe Vila

Laguntzaileak:

Manu Cobo
Asier Urkiza

Koordinazioa:

Naroa Peña

Diseinua eta maketazioa:

Aitor Marín. (amc diseinua)

Zuzenketak:

Iñigo Ramirez de la Piscina



Bilbao
EUSKAL
KULTURAREN
ERAKUSTOKIA

Zorrotz Morrotz aldizkariak Bilboko
udalaren diru-laguntza jasotzen du.

Edukia erantzule bakarra ZM
bera eta kasuan kasu, testuaren
sinatzaileak dira.

Albiste on batekin hasiko gara: herri aldarrikapeneko urte askoren ondoren, SADER auzotik joango da. Orain lana amaitzea eta PROFERSA, aurrekoaren enpresa osagarria, gure auzotik desagertzea geratzen da. Adi egongo gara gertatuko denarekin. Espero dugu Zorrotzan ezinegon handia sortu duen arazo hau behingoz konpontzea.

Halaber, aipatu behar da duela egun batzuk Bizkaiko Batzar Nagusietan Euskal Erroten eraikinaren egoerari heldu zitzaioela berriro. Dirudienez, eraikinaren jabeentzako zigorra izango zena beste luzapen bat bihurtu da. Bat gehiago. Asko kezkatzen gaitu eraikinaren egoera gero eta kaxkarragoa izateak, eta denbora aurrera doa konponbiderik gabe.

Ahal dugun guztia egiten ari gara FEVEren lurperatzeari buruzko informazio-azterlana ezagutzeko. Prozesuaren zein unetan gauden jakin nahi dugu, eta horretarako Udalera eta beste instantzia batzuetara jo dugu.

Auzo Elkartearen agendan eta auzoko Herritarren Mugimendu osoan jarraitzen dute hainbat gai oso garrantzitsuek. Hirigintza, hezkuntza, edo osasun arloaren inguruan kezka handia dago. Kulturari, aisialdiari eta bizikidetzari dagozkionak ahaztu gabe. Hauei guztiei eta gehiagori buruz aritzeko, gogorazten dizuegu Auzo Elkarte astearteetan 19:00etatik aurrera biltzen dela Auzo-Etxean eta parte hartzera gonbidatuta zaudetela.



zorrotz
auzo elkartea



IZAN ZAITEZ HARPIDEDUN!

ZM zure e-postan jasotzeko, bidali mail bat zmorrotz@gmail.com helbide elektronikora, gaiaren laukian **"harpidetza"** jarri

Regalos
Omega
oparidenda

Fraí Juan 19
Omega galeriak
Zorrotza
94 482 03 66

www.omegadetalles.com



Taramona

ERAKUSTOKIA ETA SALMENTAK

Zorrotza-Kastrexana errep. 45-57-75
Telefonoa: 94 442 44 68

TAILERRAK ETA ZERBITZUAK

Zorrotza-Kastrexana errep. 75
Telefonoa: 94 442 17 12

Lápices
LIBURUDENDA

Untziola kalea, 8
ZORROTZA



Saderrek Zorrotzan hondakin arriskutsuak tratatzeari utziko dio eta Ortuellara lekualdatuko dute 2024an

Zehazteke dago lantegi berean kokatuta eta ongariak ekoizten dituen Profersa enpresarekin zer gertatuko den

AITOR MARÍN

Sader enpresak, arriskutsuak izan daitezkeen industria-hondakinak tratatzen dituen enpresak, Agaleus bere matrizearen bidez jakinarazi du Zorrotzan duen jarduera partzialki utziko duela 2024. urtearen amaieran, eta Ortuellan beste lantoki bat irekiko duela. Hala ere, ez dakigu zer irtenbide emango zaion Profersari. Enpresa hori Saderren instalazio berberetan dago, baina 2011n bereziki enpresatik, eta ongariak ekoizten ditu.

Enpresa horien jarduerak eragozpen eta kexa handiak sortzen dituzte. Tximiniako keaz eta etengabeko usain txarrez gain, urtero 8 mila kamioi inguru igarotzen dira auzoko hirigunetik industria-hondakinez beteta.

Enpresak auzotik behin betiko irteteko eta Zorrotzan zuen jarduera guztia bertan behera uzteko borondatea agertu du, eta adierazi du “bizilagunen ezinegona dela kokapen berri bat bilatzeko arrazoietakoa bat”. Halaber, enpresak “berrikuntza estrategikoa” behar duela eta bere “sistemak modernizatu beharra” onartzen du. Zorrotzako fabrika antolamendutik kanpo dago 1995az geroztik, eta Ortuellan zerotik hasiko dira, “inbertsio handiarekin eta makineria berriarekin”.

Hala ere, Sader-Profersak gogorarazi du auzotik behin betiko ateratzeko erabakia Bil-

boko Udalaren esku dagoela. 2015ean, bi aldeek beren jarduera lekualdatzeko akordioa sinatu zuten, baina udalak oraindik ez ditu egin ingurunean beharrezkoak diren higintza-aldaketak.

Auzo-Elkartea eszeptiko agertu da albiste honen aurrean. Udalari informazio argia eta egiazkoa eskatu dio, “hainbat hamarkadan enpresa horien eta gure inguruko beste batzuen kutsadura jasaten ari diren bizilagunentzat”. Lekualdaketa erabatekoa ez izatea deitoratu dute: “Osasunarentzako arriskuari eta kamioien joan-etorriak jasaten jarraituko dugu Udalak Hiri Antolamenduko Plan Berezia onartu arte, eta 2024tik harago izango da hori”.

Auzo-elkartea kexu da, halaber, Bilboko Udalak Saderren jarduera errazten duela. Horrela, kontrol gehiago eta pribilegioak bertan behera uztea eskatzen dute. Adibidez, joan den urtarriko lizitazioaren arabera berdegune izango den Jaboneraren apartokalekuaren berrurbanizazio berrian, enpresaren kamioientzako 12 apartokaleku baino gehiago prestatu dituela salatzen du Elkar-teak. Era berean, Azoka parkeko kutsadura neurtzeko kabina hainbat urtez desgaituta egon dela salatu dute. “Eta orain, berriz ere funtzionatzen ari denean, akatsak ditu, eta horren ondorioz, askotan ez da neurtzen Zorrotzan jasaten dugun kutsadura”.



Kastrexana ganara lekualdatuko dute Garbigunea

ZORROTZ MORROTZ

Auzo-elkartearen proposamenari kasu eginez, leku bat atontzen ari dira Kastrexana ganan Zorrotzako Garbigunea hara lekualdatzeko. Horrela, Zorrotzgoitibidean egun birziklatze-zentroa dagoen lursaila birgaitu eta urbanizatu ahal izango da.

Bilbogarbira eraman daitezke, esaterako, etxeko tresna elektrikoak eta halaber obra eta konponketen hondakinak, edota tresnak eta botikak, pilak eta bateriak, ehunkiak, zurak...



Apirilaren 6ko gauean helduko da 22. Korrika Zorrotzara

AITOR MARÍN

Pandemiagatik 2021eko hitzorduari huts egin ostean bueltan da euskararen aldeko AEKren lasterketa erraldoia. “HitzEkin” lelopean martxoaren 3an Amurriotik abiatuta, Basurtutik sartuko da Zorrotzara 22. Korrika apirilaren 6an, asteazkenean, gaueko 23:48an. Gurean hainbat lekuko aldaketa egin ostean, Barakaldorantz agurtuko dugu.

Auzoko Korrika Batzordeak hainbat ekitaldi eta ekintza prestatzen ari da Korrika dela eta. Momentuz zehazteke daude, beraz adi egon kartel eta sare sozialei!

Santer & BAR

Afariak ostiral
eta larunbatetan

Etxeko berezitasuna:
katxopoa.

Telefona: 944 415 416
Zorrotzabaso, 13
ZAZPI LANDA

BAR VENECIA

Espezialitateak:
Kafea, tortilla, tortilla beteak
eta bestelako pintxoak

Abaro estrata 10

AUPA ATHLETIC



Zirgarien kaiko bidegorriak hiru hilabete daramatza itxita luizi baten ondorioz

ZORROTZ MORROTZ

Zirgarien kaiko bidegorriak berrogeita hamar metro inguruko tartea du moztuta, abenduaren hasierako euriteek lur-jausia eragin zutenetik. Orduan, udalak hormigoizko bloke batzuk jarri zituen, luizi gehiago ekiditeko eta txirindulariak eta ibiltariak babesteko. Eta harrezkero, ez da inolako aurrerapenik izan hura konpontzeko.

Dirudienez, berriz ere erakundeen arteko talka baten aurrean gaude. Adif, bidegorriaren gainetik igarotzen diren Renfe Aldiriko trenbideak kudeatzen dituen enpresa publikoa da erori den hormaren jabea. Udalak

ziurtatu du obra Adifen eskumena dela, eta enpresa publikoari hainbat aldiz eskatu dio arrokak eta eroritako lurra kentzeko, erantzunik jaso gabe. Beste irtenbide bat udalak lanak modu subsidiarioan egitea izan liteke, baina udal iturrien arabera, eragiketa ondo aztertu behar da, ezin baita ezer egin trenbidearen segurtasunean eragina edo arriskua suposatzen badu.

Bitartean, denbora aurrera doa inork ezer egin gabe. Ohartarazteko seinale pare bat jartzea baino ez da egin, udalak jarrita, moztutako tartean txirindulariak bizikletatik jaits daitezzen.

Bilboko udalak lizitaziora atera du Zorrotzako muturreko zirgarien parkearen proiektua idaztea

ZORROTZ MORROTZ

Bilboko Udalak urrats berria egin du Zorrotzako Muturreko Zirgarien parkea eraikitzeko, proiektua idaztea lizitaziora aterata. Behin adjudikatuta, hilabete bi eta erdiko epea egongo da 110.000 euroko aurrekontua kontsignatu den proiektua idazteko.

Zirgarien parkeak 11.606 metro koadroko hedadura izango du, Renferen aldirietako linearen trenbide-azpiegituren mugakide diren lurretan, «La Jabonera» xaboi-fabrika zegoen tokian.

Parkeak forma irregularra izango du, eta aldapa apur bat, kaiaren eta itsasadarren alderantz. Era berean, zenbait bankada

egongo dira, kota desberdinetan, iraganean eremu hartan egondako industria-instalazioen orogarri.

Gaur egun, ibilgailuentzako aparkaleku gisa erabiltzen da eremuaren zati handiena. Gainerakoan, erabiltzen ez diren orubeak daude.

Udalak aditzera eman du Zirgarien parkearen proiektuak aurreikusi beharko dituela belau-naldiarteko erabilera eta azpiegitura berde eta erresilienteak; honela, lagundu beharko du Zorrotzako Muturra txertatzen oinezkoentzako gune naturalak indartzen dituzten ibilbideen eta parkeen sarean; aisialdia ahalbidetu beharko du, eta garraio publikoa eta bizikleta erabiltzea sustatu beharko du.

TXOKO FEMINISTA



Genero-berdintasuna lortzean eta emakume nahiz neskato guztiak ahalduz datzan 5. Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) berdintasuna lortzeko erronkak barnartzen ditu. Genero berdintasuna oinarritzko giza eskubidea bada ere, ez dago berdintasun osoa eta efektiboa lortu duen herrialderik. Generoen arteko desberdintasuna sistema patriarkalaren bitartez erreproduzitzen da eta hau, era berean, eremu publiko zein pribatuan emakumeen kalterako generoen arteko botere erlazioak arautu

eta emakumeak sistematikoki gizarte erakunde erabakitzaileetatik kanpo uzten ditu.

5. GIH-ko erronkek maila indibidual eta kolektiboagoan zuzentzeko diskriminazio faktoreak aurkezten dituzte, hala nola genero indarkeria, praktika kultural kaltegarriak, zaintzen gainpisua, sexu eta ugalketa eskubideen ez betetzea, teknologiaren erabilera eta lurraren jabetza eskasa, eta eremu nagusiki politikoan ematen diren diskriminazio politikoa, goi mailako erakunde erabakitzaileetan parte hartze eta genero berdintasuna eta ahalduz sustatzeko politiken presentzia urria.

SALAKETA ARGAZKIA

Benetan da hain zaila?

Hiru hilabete daramatza moztuta zikloturista gehien erabiltzen duten Bilboko bidegorria. Hirigunea Ezkerraldea eta Enkarterrirako errepideekin lotzen duena. Baita Zorroztako bizilagunek gehien erabiltzen duten pasealekuaren ondoan dagoena ere. Eta hiru hilabete hauetan, Eusko Jaurlaritzarekin eta Estatuko Gobernuarekin adibidez abiadura handiko tren geltokietarako kudeaketa-gomendioak sinatzen dituen Bilboko Udal berak, egin dezakeen guztia bi seinale jartzea al da, gainera inork jaramonik egiten ez diena? Hain zaila al da erakundeen artean ados jartzea lur pila bat kentzeko eta Zirgarien kaiko pasealekuan txirrindulari eta oinezkoen artean balizko istripuak saihesteko?




VIA gráfica

viagraficazorrotza@gmail.com

Disenya

SATZ

OKINDEGIAK

Zorrotzako labea

Zugandik gertu

Zorrotza Kastrexana errepidea, 34
Tfn. 94 441 09 71
Zorrotza - 48013 BILBO

100 urte



ZORROTZA F.C.
kirolarekin,
auzoarekin eta
euskararen alde!

// Hemengo kultura asko interesatzen zait eta bezero batzuekin euskaraz hitz egitera ere ausartzen naiz //

JHON ROJAS CRESPO

Jaiotokia: Cochabamba (Bolivia)

Noiztik Zorrotza: 2020. urtetik

Adina: 33 urte

Lanbidea: Fruta-saltzailea

Duela hamabost urte Madrilera heldu zen Jhon, Bolivia atzean utzita. Orain dela bi urte fruta-denda bat ireki zuen gure auzoan. Euskara apur bat ere badaki eta bezeroei "lagun" deitzeko ohitura dauka.



IGOR GUTIÉRREZ

Noiz eta nola heldu zinen?

Bolivian harrapatuta bezala sentitzen nintzen. Orduan, hemezortzi urterekin, ikasten ari nintzela, amamak Espainiara joateko billetea ordaindu zidan. Madrilera larunbat gau batean heldu nintzen eta izugarri harritu ninduen ambiente horrek. Oso familia kontserbadoretik nentorren, ia ez nintzen etxetik ateratzen, ez nuen ez edaten, ez erre-tzen...

Eta nolako ibilbidea egin zenuen Zorrotzara heldu arte?

Leku askotan bizi izan naiz: Madril, Sevilla, Murtzia, Alacant, Londres, Frantzia... Dene-tarik egin dut, hasieran fruta-soroetan ibili nintzen baina tabernari, igeltsero eta beste-lako lanak ere izan ditut. Lehen ilegal negoen, ez nekien ezertxo ere legeei buruz. Bitan ha-

rrapatu ere egin ninduten eta izen-abizen faltsuak erabili behar izan nituen deporta-zioa ekiditeko! Gerora, egonkortu nintzen eta nire familia nirekin bizitzera etorri zen, Se-villara. Baina, Boliviara oporretan joan nin-tzen batean, haiek Bilbora mugitu ziren nire gauza guztiak beraiekin eramanda. Hala, Se-villara itzuli barik, Bilbon bukatu nuen. Eta badira bi urte fruta-denda hau ireki nuela.

Nola doitu zinen Bilbora eta gure auzora?

Hasieran oso gaizki, ez nuen hemen egoterik nahi eta depresioak jota ibili nintzen denbo-ra batez. Lanik ez topatzeak eta eguraldiak berak goibeldu egiten ninduen baina lanean jarri orduko gauzak hobera joan ziren. Aitak fruta-denda hau erosi zuen nire anaiarentzat baina hark ez eta nik hartu nuen azkenean. Oso pozik nago nire lanarekin, bezeroekin eta auzoarekin oro har.

**“Leku askotan
bizi izan naiz: Madril,
Sevilla, Murtzia, Alacant,
Londres, Frantzia...”**



Zer da hemen gehien eta gutxien gustuko duzuna?

Bilboko Aste Nagusia izugarria iruditzen zait, ez dut inon horrelako jairik ikusi. Pintxopotea ere asko gustatzen zait. Auzo honetan oso gustura nago baina batzuetan ziria sartzera datozen pertsonak etortzen zaizkit dendara, hori da gutxien gustuko dudana. Eta aldapak (barre egiten du), lautadetan bizitzera ohituta nago-eta! Hemengo kultura ere asko inte-

resatzen zait, helduentzako eskolan euskara apur bat ikasi nuen eta bezero batzuekin ere hitz egitera ausartzen naiz!

Zure herrira itzuli zara? Bertara bizitzera bueltatzeko asmorik duzu?

Bitan egon naiz oporretan baina jada gehiago naiz hemengoa hangoa baino. Orain ezkon-duta nago eta ume txiki batekin, beraz momentuz ez daukat hara bueltatzeko asmorik.



**ZORROTZA
HERRIGINTZAN**



ZORROTZAKO BATZOKIA

Erreserbetarako telefonoa: 94 465 46 15
(bazkariak, afariak, urtebetetzeak, ospakizunak...)



“Risko” izenaren jatorria

Bernardo Santiago Amasuno San Emeterio, Santi, 1915ean jaio zen Kantabriako herri batean. Gaztetatik boxeoarekiko zaletasun handia erakutsi zuen, eta 1936ko Berlingo Olinpiadara joateko hautatua zegoen Espainiako gerra zibila hasi zenean. Gerran bukatu zen bere kirol ibilbidea, jasotako tiro batek eragindako zaurien ondorioz.

NAROA PEÑA - IBAI BARRIOS

“Risko” izena ezaguna egiten zaigu zorrotzar guztioi. Urtetan zabalik egon zen kirol arropa denda, eta gaur egun burdindegi baten izena da. Baina badakigu nor izan zer Risko hori? Bernardo Santiago Amasunok, Santik, Santanderren hasi zuen bere ibilbidea 16 urte-rekin. Bertan oso zaletasun handia zegoen boxeoarekiko. Europako txapeldun izandako Ignacio Ara bere entrenatzaileetako bat izanda, eta beste boxeolari askoren aurka borrokatu ondoren, Kantabriako txapeldun izatera iritsi zen pisu ertainean.

Arrakastak eta ringeko erraztasunak zirela eta, lehiatzeko orduan izen artistiko bat beharrezkoa zuen eta Risko deitzen zioten. Ezizen horren zergati zuzena ez dakigu, baina ematen du urte haietan zeraman txandak batetik hartu ziotela, bertan bere ezizena agertzen zelarik.

1936an Gerra Zibila hasi zenean, Santi Berlingo Joko Olinpikoetara joateko hautatua zegoen. Guztia utzi eta gerrara joateko hartu zuten Errepublika defendatzeko. Han, Teruelgo frontean, fusil-tiro bat jaso zuen, lepoa alderik alde zeharkatu ziona baina, zorionez, ez zuen ez bizkarrezurra ez arteriarik ukitu. Handik Santanderrera eraman zuten ahal

bezain laster, eta bertan “Zaldun mutilatua” izendatuta, bukatu zen gerra Santirentzat.

1945. urtearen inguruan, borrokatzeko aukerarik ez zuenez, eta boxearen munduaz liluratuta, epaimahaile izatea erabaki zuen kirol honi lotuta jarraitzeko. Zazpi urte beranduago, eta harakin izateko helburuarekin, 1952an heldu zen Zorrotzako hiltzera lanera. Bakarrik etorri zen, familia atzean utzita, 1955eko otsailean, emaztea eta 4 semeak Basurtura bizitzera etorri ziren arte. 1957an harategia ireki zuen Zazpi Landan, Bilbo-Santander trenbidearen lubakiaren ondoan. 1960an, familia osoa Zorrotzara etorri zen bizitzera, Usandizaga Musikaria kalera, eta La Bolera taberna-jatetxea irekitzea erabaki zuten. Harategia taberna-jate-txearen ondoan zegoen eta bertan familia guztia aritu zen lanean.

1968an, lurrak eta etxeak desjabetu zizkioten eraisteko eta autobia eraikitzeko geroago. Horregatik, 1969an, beste negozio batzuk ireki behar izan zituzten, hala nola elikadura-denda bat, gaur egun Risko Burdindegia (Picos Burdindegia zena) dagoen lekuan hain zuzen ere. Bigarren semea bitxigile izateko trebatu eta Amasuno bitxitegia sortu zuen Zorrotza Kastrexana kalean, duela gutxi arte irekita egon dena. Kale horretan bertan, ondoan, aitaren izen artistikoa zeraman Risko kirol arropa denda zegoen.

Santik bizitza betea izan zuen, 1987an hil zen arte gozatzen jakin zuena. Ondare oparoa utzi zuen bere senideentzat, eta baita guk guztiok ere gozatzeko.



RISKO
Burdindegia

Zorrotza Kastrexana, 7
Telefona: 94 441 64 86

MADNESS KAFETEGIA
Elena eta Javier
Zaldua estrada, 5 - atzea
ZORROTZA
48013 BILBO

MADNES

Tel. 94 441 62 75

El TO de Fray Juan

Pintxo askotarikoak, hamburgesak eta sandwichak
Bazkariak eta afariak (erreserbatu behar da)
Ardo onak, konbinatu gozoak, Futbol, musika...

Fray Juan, 10 - Zorrotza - 48013 Bilbao

MARI MAR MARTÍNEZ

Osasun Zentroko

Lehen Arretako unitateburua

// Osasun Zentroko profesionalok auzoaren babesa sentitu dugu beti //

Mari Mar familiako mediku gisa hasi zuen bere ibilbidea 2008an auzoko Osasun Zentroan. Lanbidez gain, pasioa du familia-medikuntza, eta esperientziak baliatuta, urte batzuk geroago Lehen Mailako Arretako unitateburu izendatu zuten. Hainbat gauzaren artean pandemian bizi izandako zailtasunez, murrizketak salatzeko mobilizazioez, edo kontrobertsia handia sortu duen telefono bidezko arretaz mintzo da hurrengo lerroetan.



Zenbat denbora daramazu Zorrotzako Osasun Zentroan?

2008ko urritik familiako mediku gisa. 2011ko urtarilean Lehen Mailako Arretako unitateburu izendatu ninduten, Antolake-ta-funtzio horiek bateratzen ditut nire pazienteei astelehenetik ostiralera eskaintzen diedan osasun-arretarekin.

Eta zentroa asko aldatu da iritsi zinenetik?

Funtsezko alderdietan, ez. Zorrotzako he-rritarren behar soziosanitarioei estaldura ematen diegu osasunaren prebentzioari eta sustapenari dagokienez; lehen, bigarren eta hirugarren mailako prebentzioan. Poliki baina interbentzio komunitarioetarako bidean irmoki goaz aurrera. Ziur gaude hor dagoela osasuna sortzeko eta sektore behar-tsuenei laguntzeko benetako boterea.

Zenbat langile ditu Osasun Zentroak?

Hogeita zazpi profesional: bi pediatra, zortzi familia-mediku, bederatziz erizain, emagin bat, erizaintzako laguntzaile bat eta sei ad-ministrari.

Zein da auzoko pazientearen profila?

Langile-klasekoa, 65 urtetik gorako paziente-tasa handia, gaixotasun kronikoak, polime-dikazioa eta tabako-ohitura handia dutena.

Azken urteetan, pandemiaren aurretik ere, Osasunaren Lehen Mailako Arretako krisiaz hitz egiten zen. Langile falta, murrizketak, oporretan ordutegien murrizketak... Zorrotzako Osasun Zentroan horrelako es-tutasunak izan dituzuela uste duzu?

Euskadiko edo Estatuko gainerako osasun zentroetan bezala, une zailak bizi ditugu gure profesional-plantillaren estaldurari aurre egiteko gaitasunari dagokionez. Horre-gatik, gure lana ahalik eta modu eraginkorre-nean antolatzeko eta planifikatzeko modurik onena bilatzen dugu, beti une bakoitzeko egoeretara egokituz.

Zehazki, Zorrotzan mobilizazioak izan ziren pediatria faltagatik. Zer gertatzen ari da pediatrekin?

Estatuko BAME bidezko pediatriako presta-kuntza-plazen eskaintzak pediatrien gaikuntza bermatzen du beren jarduera profesionala ga-ratzeko, bai ospitaleetan, bai osasun zentroe-

“Azken urteetan une zailak bizi izan ditugu gure profesional-plantillaren estaldurari aurre egiteko

tan, bi asistentzia-mailetan langile-beharrak sortuz. Pediatrek garapen profesionalerako aukera desberdinak dituztenez, eskariak ba-tzuetan eskaintza gainditzen du.

Mobilizazio horietako batzuk kanpoko eragileek deituta, baina osasun-langileek eurek ere antolatuta egon dira. Auzoa-ren babesa sentitzen duzue? Mobilizazio horien ondorioz, aldaketarik lortu al da?

Zorrotzako Osasun Zentroko profesiona-lok beti sentitu dugu auzoaren babesa, eta eskertzen dugu babes hori. Zorrotzako ko-munitateak urteak daramatza sareak ehun-tzen, eta eragile askok parte hartu dute sare horietan, zailtasunei elkarrekin aurre egiten laguntzeko, itxaropenez. Auzoarekin komu-nitate-arloko jardueretan parte hartzearen aldeko apustua egin dugu beti, alderdi sozio-sanitarioak elkarlanean landuz.

“Pandemiak gure talde-lana eta gure gaitasun operatiboa indartu ditu

Eta erabiltzaileok arduraz erabiltzen al dugu sistema?

Denok ditugu erantzukizunak gure gain har-tzeko. Guk, profesionalok, osasun-asisten-tziarik onena eskaini behar dugu, ditugun baliabideekin. Gizabanako bakoitzak, eta bereziki komunitateak, ez ditu soilik estra-tegiak bilatu behar osasun-zentroak bere osasunaren alde zer egin dezakeen pentsa-tuz. Halaber, pentsatu behar da zer egin de-zakeen bakoitzak bere osasuna hobetzeko, eta Zorrotzako bizilagunen komunitateak zer egin dezakeen auzoko osasun-maila hobe-tzen laguntzeko.

“*Pandemiak guztion sendotasun fisiko eta mentala kolokan jarri du, bai osasun langileena eta baita gizarte osoarena ere. Harrotasunez esan dezaket Zorrotzako profesionalak ahalegin handia egin dutela eta gainkargari aurre egiten saiatu direla, erabakitasunez eta entrega handiz*”



Bi urte beteko dira laster pandemiak osasun sistema osoa hankaz gora jarri zue-netik. Nola bizi izan zenuen zuk eta nola ikusi dituzu osasun zentroko kideak?

Osasun-arretan eta osasun-zerbitzuen eskaintzan orain arte inoiz bizi den ziurgabetasun unerik handienak egon dira. Guztion sendotasun fisiko eta mentala kolokan jarri da, osasun langileena zein gizarte osoarena. Harrotasunez esan dezaket Zorrotzako osasun-zentroko profesionalak ahalegin handia egin dutela eta gainkargari aurre egiten saiatu direla, erabakitasunez eta entrega handiz.

Egoera horrek blindaje moduko bat eragin du osasun zentroetako eta ospitaleetako sarbideetan. Telefono bidezko arreta betiko egonkortuko da? Lan egiteko modu honek abantailak edo zailtasunak ekarri ditu zuen egunerokotasunean?

Osasun-arazoak konpontzeko, jarraipenak egiteko eta laguntza eskaintzeko telemedikuntza ez da kontzeptu berria, baina zailtasunak sortzen dizkie pazienteei, zailtasunak gabe. Eredu hori zailtasunak jartzen da, bai; agian ezjakintasunagatik. Profesionalak dagokigu ziurgabetasun hori desagerraraztea, gure onena emanez, sistema hau, arina eta beharrezkoa izan daitekeena, ahalik eta

eraginkorrena izan dadin. Egia da abantaila batzuk badituela: joan-etorriak eta itxaropaldiak saihesten ditu, edo lanean baimena eskatzeko beharrarik ez dago; kutsatzeko arriskua murrizten du; osasun-zentroratu ezin diren pertsonen irisgarritasuna errazten du... Telefono bidezko kontsulta bat aurrez aurreko kontsulta bat bezain garrantzitsua da, eta, beraz, osasun profesionalok behar duen arreta, denbora eta kontzentrazioa eskaintzen dizkiogu.

Azken joera da paziente bakoitzak bere prozesua kudeatzea webguneko jarraibideen laguntzarekin. Badabilela uste duzu? Osasun zentroarentzat abantaila da?

Baliagarria da trebetasun digitalak dituzten pertsonentzat, eta egia da gizarteko pertsona gehienek badiutuztela trebetasun horiek. Baina ezin da alde batera utzi desberdintasuna susta dezakeen arrakala digital bat dagoela. Horregatik, osasun zentroak laguntza eman die behar izan duten pertsonen, pazientearen arreta-eremuaren bitartez.

Uda amaieran pandemia garaian kontratatutako errefortzuko langileak kaleratu ak izan zirenean, lehen mailako arretak bere gain hartu behar izan zuen arakatzailen lana, PCR eta antigenoen probak, eta baita

// Ezin dut imajinatu nire bizitza beste esparru profesionalen //

Medikuntzan aritu izan ez bazina, zertan gustatuko litzazuke lan egitea?

Ezin dut imajinatu nire bizitza beste esparru profesional batean. Familia-medikuntzan aritzea izan da inoiz egin dudana aukerarik onena.

Osasun-arloko lanak eman dizun gogobetetasunik handiena?

Nire pazienteak egunero artatzea eta haien osasun-beharrak esku onetan daudela sentitzen

dutela baieztatzea. Asko pozten nau, halaber, nire paziente askok beren osasuna zaintzeko duten kemena ikusteak.

Miresten duzun norbait?

Nire lankideak: osasunaren defendatzaile nekaezinak; egunero osasun-arazoei ahalik eta modurik egokienean erantzuteko ezbeharrak aukera bihurtzen saiatzen direnak. Eta esan beharra dago ez dela batere lan erraza.



txertaketa ere, txertodromoak desegitean. Nola bizi izan da hori osasun zentroan?

Erronka handia izan da prozesuak planifikatzeko eta gure profesionalak zeregin berrietara egokitzeko dugun gaitasunarentzat. Beti ere etengabe aldatzen ari ziren beharren arabera. Horrek guztiak gure talde-lana eta gure gaitasun operatiboa indartu ditu.

Zuen ahalegina izugarria izan bada ere, ematen du pazienteak oro har ez daudela pozik. Aurrez aurreko arreta gehiago eskatzen da eta hitzorduetarako itxaronaldia luzeegia da... Zure ustez, zer aldatu behar ko litzateke hori hobetzeko?

Uste dut lagunduko lukeela osasun-zerbitzuak arduraz erabiltzea. Era berean, osasun zentroko erreferentziatzeko profesionalekin

komunikazioa hobetzeak ere lagunduko luke, zalantzarik gabe.

Uste duzu auzotarrok eta auzoko elkarteok zerbait egin dezakegula egoera hau hobetzeko edo nolabait laguntzeko?

Elkarrekin lan eginen jarraitzea, osasuna sortzeko eta gaixotasunari erabakitasunez, konpromisoz, errespetuz, duintasunez eta zintzotasunez aurre egiteko. Kexaren kultura gainditu behar dugu, eta erantzunkidetasunaren kultura aurrera egin. Uste dut guztion arreta erakarri behar dela osasun-sistema bidezkoago bat bilatzeko borrokan aritzeko. Banakoari estaldura emango diona, noski; baina komunitatearen indarra ere eskainiko duena, guztion ongia lortzeko bitarteko gisa.



**FARMAKOTEGIA
SUSANA
URRITIKOETXEA**

Astillero 1. 48013. Zorrotza
Tlfno. 94 441 61 46



Untziola kalea, 8
ZORROTZA



Zure zain gaituzu
Zabidea estratako 13an.

CROSS TRAINING
ENTRENAMENDU FUNTZIONALA
TXIKICROSS

Deitu 623 106 531 telefonora





AGENDA

Apirilak 6 asteazkena

22. KORRIKA

23:48 Basurtutik.

Aurreko asteburuan, kultur ekitaldiak.

Adi karteilei eta sare soziale!

Apirilak 8 larunbata

21:00 Gaztetxean.

Kontzertua:

O' FUNK'ILLO:

Apirilak 28 osteguna

19:00 Zorrotzako Udaltegian.

Antzerkia:

29 PRODUCCIONES:

"Peter Pan: Hasta siempre jamás"

Euskaraz jolasean

www Berbaxerka

<https://berbaxerka.gitlab.io>

Katalunian sortutako Paraulogic jo-koaren euskarazko bertsioa da Berbaxerka. Letrak elkartuz ahalik eta hitz gehien lortu behar dira erdigunean gorri nabarmenduta dagoen hizkia derrigorrez erabilia. Letrak egunero aldatzen dira eta sarean azken asteetan arrakasta handia izan du. Berbaxerka jolasean aritzeko ez da behar aplikazio-rik deskargatzea, sarean jokatu daiteke eta mugikorrerako ere egokituta dago.

www Wordle

<https://wordle.talaios.coop>

Berbaxerka jolasean ez bezala, Wordle jolasean hitz bakarra asmatu beharra dago gehienez sei saiakeratan. Saiakera bakoitzaren ondoren letren kolorea aldatu egingo da eta horrek hitza asmatzeko gertu zauden edo ez erakutsiko dizu. Talaios enpresaren eskutik etorri da hizki jolasa.

Zure elkartearen ekitaldiak ZMeko hurrengo agendan (maiatza-ekaina) iragartzeko, zmorrotz@gmail.com helbidera idatzi apirilaren 21a baino lehen.



Karena

Alaine Agirre Garmendia

Elkar. 2021. 236 orrialde.



Amatasunarekin loturiko hainbat gai, normalean isilpean eta ezkutuan geratzen direnak agerira dakartza Alaine Agirrek, intentsitatez eta hunkiduraz idatziriko eleberrri honetan: Lagundutako Ugalketa teknikak, horren ondorio fisiko eta psikologikoak, bikoteko batek guraso izateko besteak baino gogo gehiago duenean sortzen

diren arrakalak, amarenganako errespeturik gabeko erditzeak, nahi gabeko abortuak eta horren doluak...

Egileak ohi duen indarrez eta pasioz kontatzen digu Sara Mendizabal protagonistaren ibilbidea, lirismoz eta musikalitatez, minetik edertasuna sortuz, gorputzaren barrutik unibertso oso bat eraikiz.



LAKS: "Trago luze artean"

(Autoekoizpena) 2021



"Punk & Roll made in Zaramillo". Horrela aurkezten du bere burua Enkarterriko talde gazte honek. Pasa den urtearen amaieran lehenengo lan hau aurkeztu zigten. Laukotea ez da berria musika munduan, izan ere tal-

dekideetako batzuk Ostabe edota Detroit taldeetan ere aritzen baitira. Aurrera jarraitu baino lehen, be-raien izenaren jatorria zein den azalduko dizuegu. Bada, korrontearen aurka igeri egiten duen Norvegiako arrainik famatuena, izokina, alegia. Kontzeptua ere Eskandinaviako punk-rock taldeen influentzia zuzenari lotu dakiok.

Iraupen laburreko aurkezpen gutun honetan 6 kanta aurkituko ditu entzuleak, horietako 2 gazte-leraz. Taldeko abeslari eta kitarjolea den Gaizkaren home studioan grabatu dituzte. Nahasketak eta masterizazioa Gatibu taldeko Aitor Lakak burutu ditu. Azalaren ardura Enkarterriko Laugar garagardo markaren diseinatzaile den David Mongeren esku geratu da, emaitza ikusgarria zinez. Eta hori gutxi balitz ere, aparteko kolaborazioak izan dituzte lehenengo lan honetan. Lehen aipatutako Aitor Lakaz gain, gure auzoko Lur Jota taldeko Kristianek ahotsak sartu ditu "Deabrua eta lege berria" izeneko abestian. Zerbeza bat ireki eta igo bolumena!



PINTXOTAN


Zailtasun maila: Ertaina - handia.

Prezioa: Kontsultatu kartan. Izakinaren arabera.
(Asteburuetako menua: 30 euro).

Osagaiak: Erreboilo bat ezkata, alboko hezur eta errairik gabe, baso erdi bat ardo zuri, oliba olio, 4 ale baratxuri, sagardo-ozpina, perrexil pikatua, gatza.

Gatza eman eta labeko erretilu batean paratuko dugu erreboiloa. Ardo zuria eta oliba olio pixka bat isuri. Aldez aurretik 180°tan berotutako labean sartuko dugu erreboiloa, 25 bat minutuan. Arrainaren zukuaz garaztatuko dugu aldiro-aldiro, aise askatzeko moduan dela ikusi arte. Bukaera aldean, erreboiloa ia egin denean, zartagin batean olio su bizitan berotu eta baratxuri xerrak gorritu. Txigortu

Erreboiloa labean



direnean, sagardo-ozpina eta arrain errearen zukuaren parte bat gaineratu eta irakiten izan guztia segundu batzuetan. Perrexila erantsi eta baratxuri-olio hori isuri erretiluan izango dugun erreboiloaren gainean. Berehala zerbitzatu. On egin!

LUNA JATETXEA

Ordutegia:

Egunero:
07:00etatik 22:00etara
Asteazkenetan itxita.

Astegunero eguneko
menua.
Asteburuetan menu
bereziak.

Clara Campoamor, 2
94 499 0130
www.mesonluna.es



*Etxeko berezitasuna: haragiak eta arrainak
Itsaski-haztegi propioa
Eguneko menua eta menu hitzartua*

Clara Campoamor, 2
48013 Zorrotza

Tel. 94 499 01 30
www.mesonluna.es

LASTER 
Elektrizitatea
elektronika

- INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
- ATEZAIN AUTOMATIKOAK
- ARGIZTAPENA
- SARE INFORMATIKOAK

TFNO./FAX: 94 442 46 35
LARRIALDIAK: 657 79 57 04
www.electricidadlaster.net

MENDIGAIN ETXALDEA
ZORROTZA 48013

Jai-Alai
kafetegia



Abaro estrata, 12
94 490 12 59

Hiltegia



Espainako estatu kolpea baino lehen proiektatuko udal hiltegia, Tibolin zegoenak ebazan arazoak konpontzeko, 1941eko zemendien hasi ziran auzoan hiltegiaren lanak. Bost urte paperetan egon eta gero. Auzoan egin zan dekoguzan tren linengatik (bere garaian feve eta renfe) eta errepide nagusi batek zeharkatzen gaituelako, 634.

MANU COBO

Proiektue egin zanean etorkizunari begira eta garbitasun osoz egiteko aurreikusi-ta egoanez, halan mantendu zan. (-/+)-eta 70000m karratu eremue hartu ebiezan hiltegie ta abere azokarako, halan aurreikusten zalako Bilboko zabalgunera ez ebalta ostopo-rik egingo aberen joanetorriak kaleetatik.

Administrazioan, lehenengo garaien, alka-tea zan nagusie ta alkaldeordekoa, lau zi-negotzi, hiru auzokide eta funtzionario bi osatzen ebiezan ardurek. Europan egoan ereduei jarraituz, estatuko lehena izan zan. Eta halakon aspiegiturak eukazan.

- Trenbide biko (zabala eta estue) sarrera eta zamalekuek. (RENFE eta Santander-Robla).
- Hiru abere ikuilu ezbardinak, bobino azienda (1900 metro karratu eta 400 abelburuentzako), azienda; zurie (921 metro karratu eta 2700 abelburuentzako); eta azienda baltz edo txarri azienda (614 metro karratu eta 900 abelburuentzako). Abere ikuilu hauek aparte, alboan dagoz beste batzuk, alkarregaz konektatuak, dietakoak, hurrengo egunean akatuko diren abelburuak prest izateko.

- Akatzeko hiru nave, behikiarena 48 tornogaz eta 1300 metro karratukaz. Ardikiena 630 metro karratuekaz eta txarrikiarena egungo gaurkotasun guztiekaz hornitute.
- Hotzkailu ganbarak. Hiltegien akatuko dan haragi guztie behar dauen puntuen eta modu garbien ateratzeko dala, ziurtasune ematen dabela.
- Beste eraikin bat egazkinentzako, luma guztiek aize zurrutzgailu bategaz eta era garbien ateratzen dauela ziurtatzeko.
- Instalazio osagarriak, beste eraikin baten. Administraziorako bulegoak, garajeak, komunak, kantinak, udaleko aurrezki Kutxa, makina gela eta ur depositoa.

Abere azoka errepideagaz aldentuta egongo da, azpibide bategaz lotuko dala hiltegiagaz. Eta egitura guztia osatzeko, hondakinak aprobetxatzeko instalazioak, balio komertzial handiko haragi-, odol- eta hezur-irinak lortzeko proposamenarekin. Baita koipeak eta larruak ere.

Lan guztiak egiteko 42. 078.793,77 peseta ordaindu ziran.



PABELLONES DEL FERIAI

Goikaldean, Hiltegiaren ikuspegia Clara Campoamor den kaleko sarreran. Argazkiaren eskumaldean trenbidepeko tunela ikus daiteke. Gaur egun, hiltegi zaharra zegoen orubean polikiroldegia dago

Lerro hauen gainean, Ferialeko pabilioiak.

Eta eskuinaldean, uholdea Clara Campoamor kalean. Eskuin parteko eraikina, hiltegia da.



Geopolitikaren bideak

Geopolitikoaren bideak misterioitsuak dira. Vladimir Putinek iragarri berri du Ukrainako Donetsk eta Luhansk eskualdeek deklaraturiko independentzia onartu duela. Horrez gain, tropak bidaliko dituela ere adierazi du, posizio horiek Mendebaldearen aurrean defendatzeko. Eta horrexek zer pentsatua eman dit, gerraz bainoago, berau beti baita berez ankerra eta krudela, gatazka armatu batek dakartzan aliantza behartuez, ezkutuko interesez, eta batez ere, behin-behinekotasun antzuan errotzen diren hitzarmenez. Horretaz, ordea, ez dut idatziko, baizik eta ezkerrak (norberak defini dezala nahi duen bezala) horietan hartzen duen jokabideaz. Ez zuen horrek inongo zalantzarik sortzen Gerra Hotzeko garaiko jokaleku dikotomikoan, baina gauzak bestela dira gerrak monitorizatzen diren testuinguru garaikidean, izen handien gabezia ezaugarri nagusi den kontestuan. Nahiz eta egon badauden, AEBn denen buru, eta nola ez Errusia bera, zenbaitek Sobietar Batasunaren itzala beragan ikusi arren, beste egur bateko ezpala dena, argiki.



ASIER URKIZA

“ Nik den mendrenik ere ez dakit Ukrainaz, Siriaz edo Ekialde Ertainaz. Geopolitikaz ezer gutxi. Jakin badakit munduak gutxi duela kolore arrosetik (zergatik beti arrosa?) eta halere bizi nahiko nuke Putin bezalako integrista ortodoxoak aldeztu beharrik gabe.

Eta Ukraina. Azken asteetan hedabideek Kiev-en errusiarren balizko okupazio bat ahotan hartu eta gatazka beste nonbait sortu. Donbasseko eremuak orain dela urte batzuk eduki zuen sona, Ukrainako ejerzituaren eta errusiarren aldeko milizien arteko borrokak zirela eta. Ezkerrak orduan (tira, nik buruan dudan horrek) antifaxis-moa sustatzeko deialdia

zabaldu zuen, Donbasseko miliziak babestuz Ukrainako estatuaren aurkako beren ekinean. Egia izango zen. Esan bezala, baina, geopolitikaren bideak bihurriak dira. Irudirako arabiar primadera direlakoak eta ekarri dutena. Eta arazorik handiena zera da, nire ustez, sinpleki ideiarik ez izatea eta topiko maiztu batzuen arabera jokatzeara, Gerra Hotzeko automatismo iraungiez fidatzea, alegia. Aldaera inuzenteak eta arriskutsuagoak eduki ditzakeena, bestalde. Edozein kasutan, jokabide horrek argitasun politiko eskasa du eta mundu ziztrin hau iluntzenagotzen du, hedabide batzuen kalaka gezurtiari ekarpen mamitsuak eginez.

Nik den mendrenik ere ez dakit Ukrainaz, Siriaz edo Ekialde Ertainaz. Geopolitikaz ezer gutxi. Jakin badakit munduak gutxi duela kolore arrosetik (zergatik beti arrosa?) eta halere bizi nahiko nuke Putin bezalako integrista ortodoxoak aldeztu beharrik gabe. Gatazka banan-banan aztertzea, bakoitzean egon daitezkeen interes kontrajarrak kontuan hartzea, etika eta politika uztartzea, araztasunaren bermerik gabe baina gutxieneko batzuk bermatuta. Eta horrela politika ez da izango Hitchcocken film bat bezalakoa, tristetki. Auzolotsa dezente aurretztuko dugu, ordea.



Dena esanda dago

Zorrotz Morrotzen berriro idaztera animatuko naiz. Hemen nago, zertaz idatzi ez dakidala. Dena esanda dago; edonor ausartzen da edozein gairi buruz. Dela sare sozialetan, dela egunkarietan, jakinaren gainean edo gabe, konstruktibo edo “sudurra ukitzeko”, kontua da hitz egitea, esertzea katedra, pontifikatzea...

Auzoko osasun zentroa primeran dago? Zer gehiago esan daiteke Osakidetza-ri buruz? Datu gehiago behar dira? Desegitea dute helburu. Azalpen gehiago behar dira narriadura hau geldiarazteko?

Eta zer esan SADERri buruz? Ematen du (auskalo gauzatuko den) 2024an beste herri batera joango dela, hango herritarak kutsatzera. Hori bai, egia bihurtu baino lehen, auzoa zoriondu dugu: zorionak Zorrotza, lortu dugu! Irensele horiek! Borroka luzea izan dugu, baina SADER



TXETXU ROJO

“Hemen nago, zertaz idatzi ez dakidala. Dena esanda dago; edonor ausartzen da edozein gairi buruz. Dela sare sozialetan, dela egunkarietan, jakinaren gainean edo gabe, kontua hitz egitea da... Dena esanda dago...”

auzotik joango da Udalari eta gobernatzen gaituen alderdiari interesatuko zaienean, eta hirigintza-proiektuek hala eskatzen dutenean.

Gai batek beste batera narama; aurrekoak FEVE-

ren lurperatzea ekarri dit gogora. Zein informazio-estudiotan goaz? Zazpigarrena, zortzigarrena? Dagoeneko kontua galdu dugu. Azkena urrian publiko egin beharko zen, baina jauregiko gauzak... Zerbait gehiago azaldu behar al da lurperatzeari buruz? Heriotzak izan, mobilizazioak egin arren, ondo datorkien lurperatuko dute, geltokiarekin edo ez, metroko 17. linearen zati gisa edo bide hil gisa. Badakigu... lehenik eta behin AHTa.

Eta auzoko eskola publikoari buruz ez dago ezer esateko? Aurrematrikula daturik? 2020an 60 haur jaio dira; zenbat matrikultatu dira Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan? % 40ra iritsiko gara? Eta institutuak ez al du iruzkinik merezi? Alonsotegiko ikasleek jada ez dutela ikasiko auzoan eta Balmasedara joango dira. Horren ondorioz Batxilergoa desagertzeko arriskuan egongo da.

Ufa! Ez dakit zertaz idatzi. Dena esanda dago... Bai: dena esanda dago, baina ez dago ezer eginda!

cafe*txinbo*

Espezialitateak:

Tapak eta errazioak
Kanapeak



Abaro estrata, 10
Tel. 94 608 85 74

ROCKET TAVERN

Plater konbinatuak,
hanburgesak,
oilasko erreak...

FRAI JUAN, 8 - Tel 94 655 68 98

ESKaintza PROGRESIBOETAN

ARMAZOIA + KRISTALAK GOI-GAMAKoak

265€

Sustapena indarrean + 4,00 eserako eta ~2,00 zilindroko arteko graduazioetarako

RPS: 213/18

ibarraletaluxury
OPTICA ★



Naroa

Bai, auzoan uzten duen kiratsa desagertzeko ordua da behin betiko. Jasanezina da!



Saioa

Ez dakit zer egiten duten lantegi horretan, baina botatzen duen usaina oso nabaria da. Desagertzen bada, hobeto

IRATZE PÉREZ



Sader:

Zer deritzozu balizko itxiera edo lekualdaketa? Gauzatuko da oraingo honetan?



Iker

Auzoko usaina asko hobetuko da, horretan zalantzarik ez. Baina ezin ditugu ahaztu bertako langileak. Haiekin zer gertatuko den ere kezkatzen nau.



Julián

Bai, urte asko eman ditugu isurtzen dituen usaina eta kutsadura jasaten. Eraman dezatela behingoz!



Kurro

Bai, Zorrotzatik desagertu behar da, baina beti ere langileei beste aukerarik ematen zaien bitartean.

ehbildu

**egiteko
beste
modu bat**



ASKABIDE
kultur elkarte
zorrotza



Bilbon euskaraz

B

Bilbao



www.bilbaoeuskaraz.eus

iKasi
Mi Kasi!

0-18 urteko heziketa-ibilbide osoa,
ikastetxe publikoetan eta
Zorrotzatik irten gabe



IKASTALDE EBALDEA

Pinadia ebaldea, 6. 48013, Zorrotza, Bilbo
☎ 94 442 48 75 • ☎ 94 442 48 75
✉ sietecampas@gmail.com



IKASTALDE EBALDEA

Ikastalde ebaldea, 12. 48013, Zorrotza, Bilbo
☎ 94 442 00 21 • ☎ 94 442 00 21
✉ 014159aa@hezkuntza.net



San Miguel auzunea, 10. 48013, Zorrotza, Bilbo
☎ 94 428 01 36
☎ 94 428 01 37
✉ 015078aa@hezkuntza.net
www.jeszorrotzabhi.hezkuntza.net

10 URTE ETA 170

**EUSKAL FINANTZA TRADIZIO
ONENAREN EREDU**



**Itxaropenak,
eskakizunak
eta erronkak bete
ditugu.
Gure hasieratik.
Gure sorlekutik.
Hemendik.**